

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R A

1996ko irailak 27

Usurbil, 4. Zenbakia



**ZUBIETAN EZ DA GIRO
ERREBOTEAREKIN**

G a z i o z o e z a

JAIOTZAK



Irailaren 6an oriotarrek Kontxakobanderaren garaipena ospatzen zuten bitartean, Intxaurretako **Iturain-Garcia familiak** bazuen zer ospatua: **Malenen** jaiotza.

Malen Iturain Garcia (96-09-06)
Intxaurreta. Aginaga



Miguel Angel Martin Gallo (Santuenea) eta **Maria Cristina Corral Corral** (Lasarte-Oria) (96-09-07)

EZKONTZAK



Josefa Gonzalez Cespedes (Olarriondo) eta **Miguel Angel Giraldez Gómez** (Orereta) (96-09-14)

HILDAKOAK



x 96-09-24 **Trinidad Makazaga Mugika**. 89 urte. Pelayo-enea etxea. Kalezar


B ai, esan?

- | | | | |
|---------------------------|----------|------------------------------|----------|
| • UDALA | 34 19 51 | • TAXI GELTOKIA | 36 21 78 |
| • UDALZAINGOA | 36 11 12 | • D.Y.A. | 46 46 22 |
| • ANBULATEGIA | 36 20 13 | • GURUTZE GORRIA | 27 22 22 |
| • UDARREGI IKASTOLA | 36 12 16 | • GURE- PAKEA EGOITZA | 37 32 28 |
| • AGERIALDE IKASTETXEA | 36 38 85 | • GURE-ELKARTEA EGOITZA | 37 17 51 |
| • OIARDO KIROLDEGIA | 37 24 98 | • ARRATE EGOITZA | 36 63 40 |
| • ZUMARTE MUSIKA ESKOLA | 37 15 94 | • EUSKO TREN INFORMAZIOA - - | 47 09 76 |
| • ETUMETA AEK EUSKALTEGIA | 37 20 01 | • NOAUA! ALDIZKARIA | 36 03 21 |



USURBILGO UDALA
Aldizkari honek Usurbilgo Udalaren laguntza jaso du

Dagoeneko 228 usurbildar bazkide ditu Noaua!-k
Zu ere egin zaitez bazkide!



HERRIKO
DENDA
ETA
ZERBITZUAK
ERABILI

Noauai!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noauai Kultur Elkarte.
Kale Nagusia, 27 - 20.170 USURBIL (Gipuzkoa)
Tlf. (943) 36 03 21.

Zuzendaria: Olatz Altuna. **Kazetariak:**
Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu
Aranberri, Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari Matxain, Nere
Amenabar, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki
Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika,
Begoña Zubiria **Administrazioa:** Arantxa
Usarraide, Aitor Plakabea. **Erredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna, Garikoitz Udabe,
Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia
Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz,
Mertxe Olaizola.

Maketazioa: Susana Martin. **Argazkia:**
Joxe Antonio Labaien, Juan Luis Izeta.
Informatika: Pili Lizaso. **Banaketa:** Mertxe
Tirada: 2.000 ale. **Sukaldaria:** Joxe Mari
Sarasola

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Industrialdea 1 - 2,
20.160 Lasarte-Oria.

Noauai hamabostekariak ez du bere
gain hartzen aldizkarian adierazitako esa-
men eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

2. **Gazi-Goza-Geza** (jaiotzak, ezkontzak, heriotzak)
4. **Zer irizten?** (Manu Aranburu)
- Ika-mika** (gutunak)
5. **Berriketan** (Xabier Andonegi)
- Txirrikitutik** (argazki albistea)
- 6-7. **Kalejiran** (auzoak)
- 8-9. **San Praixku jaiak**
- 10-11. **Erreportaia** (Errebotea)
- 12-13. **Porrusalda** (berri laburrak)
14. **Izerdi patsetan** (kirolak)
15. **Herriko taldeak** (txalaparta taldea)
- 16-17. **Agenda**
18. **Lehiaketa-Komikia** (Maite Agirresarobe)
19. **Harpidetza orria.**


San Praixkuak ere bada-
toz! Aurtengo Usurbilgo
azken festak heltzeaz
daude. San juanak izan
ziren lehenengo eta
udara amaitzearekin
batera hemen ditugu
San Praixkuak.



Maginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

Zer irizten?



Manu Aranburu

Eusko Bus??

Pasa den astean Diputazio Jauregian bildu ziren garraio arduradunak, udal ordezkariak, Eusko Tren eta erabiltzaileen ordezkaria. Eskaera 30 minutuero autobusa izatea eta Eusko Trenek ezezkoa. Jauregi aurrean 35 herritar pankarta batekin bildu ziren (esan behar da goizeko 8.30etan zela bilera).

Gakoa: zerbitzu murrizketa dela eta, lege aldetik, Eusko Trenak legeak bete ditu: Diputazioari berria eman, aldizkari ofizialean jakin arazi. Baina hori ez da nahikoa. Herritarrak

behartu egiten gaituzte kotxe partikularretan ibiltzera. Normalean, Eusko Trenek inkesta egin beharko luke, bai erabiltzaileen artean eta baita beste herritarren artean ere. Zenbait usurbildar joaten da ia egunero Donostiara? Nola? Zer ordutan? etab... Hau ondo aztertu eta gauzak hobetu, ez okertu.

Beste aldetik, garraio publikoak indartu egin behar dira, kutsadura murrizteko, bizitza kalitate hobetzeko, lasaitasuna lortzeko, arriskurik gabe bidaiatzeko...Eta hau dena garraio kolektiboak ematen du. Epe motz batean badakigu batzuetan zenbait ibilgunek defizita eta zorrak dituztela, baina zer nahi dugu kotxearekin zeruraino ailegatu?

Ez! Eusko Treneko jaun-andreok.

i-ka-mika

PILOTALEKUAREN ESTALKI BERRIA

Pilotalekuari jarri behar dioten estalki berria, aspaldi honetan herriko kontu zabalduenetakoa da. Lehen behin-behinekoa zen estalkiaren ordezkari, egurrezko dotore bat jarriko omen da.

Estalki hau ahal zen txukun eta merkeena izateko, ideia-lehiaketa bat egin zen duela urte batzuk. Handik a proposena aukeratu eta benetako premietara egokitu ondoren, proiektu hori gauzatuko da.

Proiektuaren azken xehetasunak ezagutzen ez badituzte ere, nik jakin ahal izan dudaneurrian behintzat, arazo latz bat badu. Estalkiaren bukaran, dema-plaza aldera alegia, trabeskako habe handi bat izango du, erdi pareraino

beiraz estaltzeko. Gaur egun atzeko toloak egiten duen lana txukun antzera egiteko.

ASTAKERI IZUGARRIA iruditzen zait. Batetik, dema plazak eta pilotalekuak osatzen duten herriko espazio garrantzitsuenak hautsiko du. Bestetik, Usurbilgo pilotalekua eta dema ez dira soilik hori, bien artean **errebote plaza** osatzen dute. Txikitan jokatzeko ikusi izan dugu eta plazan bertan hor daude, Zubietan fosil kuttun baten gisa jasotzen den jokoaren arrastoak (sake gurutzeta, hertzetako marrak,...). Ondo dago gaur herrian garrantzia daukan esku pilota sustatzea, baina inola ere ez betikoak, plaza-ren sortzaileak ziurrenik, izan diren beste joko aukerak etorkizunerako galerazi gabe.

Euskal Herriko joko zahar eta arraroenetakoa jokatzeko oso plaza gutxi gelditzen dira, Usurbilgoari behintzat eutsi diezaiozun!

Egun, teknikak eskeintzen dituen aurrerapenak hortaraino iritsiko al dira behintzat? Eskutitz honek, dagokionak hausnartzeko balio izan badu, gaitzerdi; eta agur t'erdi.

Jakoba Errekondo

Edonork edozertaz idatz dezake; gutunak gehienez 12 lerrokoak. Helbidea: Kale Nagusia, 27. Tel. 36 03 21. Gutunak ezinez sinatuzte, baina izen-deiturak eta ENAren zenbakia beharrezkoak dira.

Ondo pasa San Praixkuak!

ETXEBESTE
JATETXEA

EGUNEKO BAZKARIAK

Aginaga (Usurbil) Tel.: 36 27 40

San Praixkuak ondo pasa!

GALARRAGA
GARRAIOAK

- LUR ONGARRIAK
- ZABOR BILKETA
- ZISTERNA BEREZIAK

TLF: 37 01 46

TXAPART


KARATEG

Ondo pasa
San Praixkuak!

Aginaga

☎ 36 19 07

XABIER ANDONEGI

Usurbilgo apaiz ohia

Noiz eta non apaiztu zinen?

1977ko irailaren 18an apaiztu nintzen Mutrikun, nere herrian, 23 urte nituela.

Hain gazte izanda ezin da apaiztu,

Aita Santuaren baimen berezi bat behar da, baina nirekin salbuespen bat egin zuten. Hala ere, ez nengoen urduri eman nuen lehenengo mezan.



Nolatan etorri zinen Usurbila?

Orain dela hamar urte obispoak Donostiara etortzeko eskatu zidan Gazte Pastoraltza zuzentzeko, eta bide batez Usurbilen bizitzeko aukera eman zidaten.

Gazte gehienek zuk ezkontzea nahi dute, zergatik?

Ez dakit ba. Seguruenik nik lasaitu egiten ditudalako eta beraiekin brometan aritzen naizelako izango da. Andregaiak berandu etortzen direnez batez ere senargaiekin arnas-arkiketak egiten aritzen naiz.

Zerbait barregarria gertatu al zaizu ezkontzaren batean?

Bapatean etortzen zaidan gauza bakarra elizara sartu behar genuenean senargaia zuri-zuri jarri eta lurrera ziplo erori zen hartakoa da.

Zer aurkitu duzu Usurbilen?

Giroa azpimarratuko nuke behin eta berriz. Onartua sentitu naiz eta harremanak erraz egin ditudala ikusi

dut.

Nolakoa da apaiz baten bizitza?

Nirea pertsonalki oso ona da. Ez naiz kejaraten.

Inoiz damutu al zara apaiza izateaz?

Momentu gogorak edo "krisiak" izan ditut, mundu guztiak bezala, baina inoiz ez naiz damutu. Gainera, urteak pasa ahala, bokazioa indartu egin zait.

Urriari utzi egingo gaituzula entzun dugu. Nora eta zertara zoaz?

Madrilera noa Master bat egitera, "Teologia eta erlijio filosofia" ikastera, hain zuzen ere. Jesuitek daramaten Comillas unibertsitatara noa bi kurtzotarako.

Zer dela eta aldaketa hau?

Aldaketa bat behar nuelako. Jadanik urte asko daramatzat Gazte Pastoraltza zuzentzen, eta ezin dut esan gaztetxoa naizenik, berrogeitabi urterekin. "Año sabático" bat hartzeko aukera eman didate eta hartu egin dut, horrela gainera Euskal Herrian erlijioa eta kulturak izan duten erlazioa aztertzeko beta ere izango dut.

Eta itzultzeko asmorik bai?

Noski. Parrokiak duen pisua gordeko didatela esan didate, eta hori niretzat mauka bat da. Lotura bat suposatzen du herriarekin. Hurrengo zubia noiz izango den jadanik pentsatzen ari naiz segituan bueltatzeko.

Dirudienez Usurbilen gehiengoa euskalduna dela ez dakite oraindik. Bestela galdetu kartel hau jarri dutenei. Motzaeneko lurretan 16 etxebizitza eta zenbait garaje ren eraikuntza laister batean hasiko direla ere erdaraz jarri behar. Euskaldunak ere nonbait bizi beharko dute ba!



argazkia: Joxean



Festa!
ondo igaro!

Aginaga ☎ 36 12 06

Zorionak aginagarrei.

Juan Mantorola e Hops, S.A.

San Praixkuak ondo pasa.

ANGULAK

Galardi etxea, z/g Aginaga

Tfno. 36 20 52
Fax 37 02 63

KALEZAR



**Begoña
Zubiria**


Eskolarako buelta dela eta, ez dira hara eta hona plazan ikusten haurrak. Batzuk ikasturtea hastean gustora badaude ere, gehienak ez dira gogo handiz joaten.

Baina bada beraien zereginaz gain, haur guztien ahotan dabilen beste kontu bat. Nonbait, **Kalezartik ikastolara joateko autobusa kendu** egin omen dute. Ikastolatik irtetean Kalezar alderako itzulera autobusez egin badaiteke ere, goizetan aurten ez dute autobusik **Udarregira joateko**. Beraz, goizean jeiki eta oinez joan behar izaten dute. Egia esan, kalezar kaxkoan bizi direnentzat ez da hainbesteko arazoa. Izan ere motxilak hartu eta kontukontari laister batean iristen da ikastolara.

Arratzain aldean bizi direnek ordea beste begiz ikusten dute hau. Ez da berdina goiko alde hartatik Udarregira egin beharreko ibilbidea eta hori dela eta autobusa jartzea beharrezko ikusten dute. Hala ere badirudi gurasoek hitzegin dutela ikastolako zuzendaria-ekin eta konponbideren bat lortu omen dute joan den astean. Beraz **laister** batean **goizean autobusa** izango dute **Kalezar nahiz Arratzain aldeko ikasleek**.

Zer egingo diogu ba! Ez da larriegia kalezartik Usurbila oinez joatea. Goizean goiz haize freskoa hartzeak ez die kalterik egingo, ez eta oinez ibiltzeak ere.

ATXEGALDE



**Amagoia
Mujika**

Ikasturte berria estreinatua dute jadanik **Udarregi eta Agerialdeko ikasleek**, batzuen algarak eta besteen negarrak autobusaren burrundarekin nahasten direlarik **Atxegaldeko kaleetan**. Ikasturte berria hasteak sortarazten duen zirrarari zenbait berrikuntza gehitu behar aurten, izan ere, **Udarregin Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H)** deritzona ezarri dute Derrigorrezko hezkuntza hau



hamasei urte arte luzatzen da, honela lehen hamalau urterekin egiten zen aukeraketa orain hamasei urterekin egiten da, heldutasun maila handiagoz.

Erreforma horrek ordutegi aldaketa suposatu du, ikastorduak gehitu egin direnez **zortzi f'erdietan hasten dira klaseak**. Bestalde **tailerra eta frantsesa** gai hautakorrez gain, **teknologia** ezarri dute gai berria. Hala ere Udarregi ikastolan azken erreforma honen eragina ez da hain nabarmena izan, taillerak aspalditik egiten baitira. Irakasleen hitzetan erreforma onuragarria da. Ikaslearen garapen maila errespetatzeari garrantzi handia ematen zaio, edukinak bakoitzaren mailari egokitzuz, eta honek ikasteko

motibazioa handiagotzen du ikaslearengan.

Orain arteko irakaskuntza "buruz ikastea" oinarritzen bazen, orain gaitasunari ematen zaio lehentasuna, ikasleak ikasten ikasi behar du

Udarregin D.B.H.a ezarri badute ere ezin esan **Agerialden** berdina gertatu denik. Izan ere ikasle gutxi izatearen ondorioz lehen hezkuntzarekin geratu da. Hau horrela izanik ikasleek **12 urterekin** ikastera kanpora joan beharko dute, **Lasarteko Landaberri ikastolara**.

AGINAGA



**Iratxe
Begiristain**

Joan den igandean **istripua** izan zen Aginagan. Goizeko 5.15ak aldera bi kotxek elkar jo zuten **Oriorako bidean**. Zorionez ez zen ezer larririk gertatu. Bi pertsona zaurituak izan ziren, bat Gipuzkoako poliklinikara eta bestea Gurutze Gorriera eraman zituztelarik ezer larririk gabe. Bestalde **San Praixkutan Arrate egoitzara ilea apaintzera** joan go direnentzat oharra. Izan ere larunbata, hilak 5ean egon beharrean **osteguna**, hilak 3an izango da Ines Kamino ileapaindegian goiz eta arratsaldez. Goizean 11.30etatik 14.00etara eta arratsaldez 16.00etatik 20.00etara



Lejiran

URDAIAGA



**Leire
Atxega**

Noaui! **Brasil** aldera bueltatxoa egitera doa. Jakin badakigu **San Estebango alaba** den **Ixabel Pagola** Ulanas hirian dabilkigula mixio lanetan. Dagoeneko **bost urte** eginak ditu bertan, daukan guztia ematen. Arantzazuko ama birJinaren egunean, Zarautzen bizi den **Manoli Pagola** bere **ahizpa** bixkia jona zitzaion **bisitan**, elkarrekin egun batzuk pasatzeko asmoz. Har ezazue gure ongi-etorri bikainena urrian biok Euskal Herrira berriz itzultzerakoan. Eta batez ere Ixabel Pagolari San Estebandar guztion partetik besarkada eta **agurrik goxoen**a eman nahi genioke.

Bestalde **lapurreta** baten berri eman behar. Izan ere **Santuenean** lapurrak bere lan-txoa egin zuen du ixil ixilean. Garajera sartu ondoren gure lagun den **Juan Mari Etxabeguneren kotxeaz** jabetu ziren lapurrak duela bi aste. Lapur bedeinkatu hauek beren lapur lanak egiten bere trebetasuna erakusten digute behin eta berriz. Inongo lotsarik ez dute izaten edozein etxetara sartzeko. Kontuz bada!, edozeini gerta baitiezaioke honelako ustekabea. Kontu gehiago izan dezagun denok kartera, giltzak, diruarekin adi ibiliz, eta ateak ere ondo itxi badaezpada ere.

TXOKOALDE



**Inaki
Labaka**

Autobus zerbitzuen murrizketarekin **Eusko Trenek Usurbilgo herritarrei** dien **begirune urriaz** jende asko orain jabetu bada ere, Txokoalden aspalditik genekien hori.

Orain dela urte batzuk trena jende gutxi hartzen zuela aitzakitza hartuta **auzoko geltokia ezabatu** zuen. Honela aurreko urteetan Donostiako Aste Nagusiko ordutegi bere-



zietako trenak gelditzen baziren ere, aurtan hori ere ez. **A ze amorrua** ematen duen aldamenetik hainbeste tren pasa, orduerdiro, eta erabili ezinak.

Tren geltokia ezin erabili izateaz gain beste zenbait eragozpen ere baditugu. Batetik **trena pasatzean ateratzen duen zarata**; eta bestetik auzoan ditugun **bi "paso nibelak"**. Bi pasabide hauek **arriskutsuak** dira benetan. Batak barrerarik ez duenez oso arriskutsua da. Jende asko pasatzen da bizikletaz erribera bidean, eta konturatzerako trena gainean izaten dute. Egoera larri ugari ikusiak gara orain arte. Esan daiteke orain arte istripurik ez izatea miraria dela.

Beste trenbide-pasaguneak hesiak izan arren jendea ez

dago gustora. Gero eta gehiagotan hondatzen da eta batzuetan trena ez datorrenean ere jeitsi egiten da. Kasu honetan norbaitek jaso behar izaten du.

KALEBERRI



**Ines
Kamino**

Orain dela urte batzuk etxteen helbideak aldatu bazituzten orain ere berriz aldatzera doaz. **Laister batean kaleen izen nahiz zenbaki berriak izango ditugu** eta udalak laster aster jarriko ditu dagozkien lekuetan.

Bestalde **Gaztainazpi kalean obrak** egiten hasi ziren joan den **asteartean**. Izan ere ezin du fisikoek eskailerak jeisteko zituzten zailtasunak ikusita, aspalditik eskatua zuten eskailerarik gabeko pasabidea. Arazoa konpontzeko hasiak dira jadanik lanean udaleko langileak.

Lapurrak ere gure artean izan ditugu. Joan den astean, astelehenean, **Lizardi liburu-dendara** egin zuten bisita arratsalde partean. Zorionez diru apur bat besterik ez zuten eramatea lortu.



FESTEN ERREMATEA SAN PRAIXKUEKIN

Aginagako San Praixku festak badatozela eta, Jai Batzordeko Albaro Bruñorekin egon gara hizketan. Hasteko, jende guztiak egiten duen lehen galdera egin diogu: zenbat egun dira aurten Aginagako festak?

Albaro Bruño.- Beti gauza bera komentatzen da, egun asko izaten direla. Aurten zortzi egun dira, baina kontutan hartu behar da aste tarteko egun batzutan ekitaldi bakarra dagoela. Astebukaera bat gutxi iruditzen zaigu, eta bi har-tuz gero, egun gehiago dira.

Noaua!.- Dirua dagoelako izango da...

Albaro.- Ez, ez, diru askorik ez dugu izaten, nahiz eta fama hori eduki. Udalak ematen digun diru guztia egunez egiten diren ekitalditan gastatzen dugu.

Noaua!.- Baina Aginagako festetan egunez ez omen da ezer egoten, dena gaez.

Albaro.- Bai, fama hori eduki

izan dute. Baina egunez ere nahiko ekitaldi badaude.

Noaua!.- Zer aipatuko zenuke aurtengo egitarautik?

Albaro.- Aipatu dena, baina berrikuntza bezala GOAZ antzerki taldea ekarriko dugu. Eta aspaldiko partez rock kontzertua ere bai. Aurten Sagardo dastaketaren 4. edizioa izango da eta 14 sagardogile etorriko dira. Arrtsaldeko 5etan hasiko da, eta beste urtetan bezala, aurten ere pare bat ordutan dena edango da, bai.

Bestalde, urriaren 12an, "hispanitatearen egunean" guk preso eta errefuxiatuen eguna antolatu dugu. Omenaldi bat izango da gaueko 1.00etan, eta bereziki Xomorro gogoratu-ko dugu, Nazkaz ere ahaztu gabe.

Noaua!.- Eta festak zer, bertakoentzat ala kanpotarrentzat?

Albaro.- Bertakoentzat, noski. Aste tarteko egunetan bertako-



Albaro Bruño Jai Batzordeko kidea

ak bakarrik izaten gara, eta orduan pasatzen dugu ondoen. Dena dela, kanpotarrak etortzen badira ere, ondo. Normalean, gainera, inguruan ez da beste festarik izaten, eta jende ugari etortzen da.

Noaua!.- Festak antolatzen Jai Batzordea ibili da. Zenbat jende biltzen zarete?

Albaro.- Berez hamar inguru mugitzen gara gehienbat. Urtarrila aldean biltzen gara musika taldeei deitzeko, eta gero maiatzean hasten gara gainontzeko ekitaldiak antolatzeko.

Hala ere, festak iristen direnean denek laguntzen dute. Etxekoandreak ere hor izaten dira bokadiloak prestatzen. Eta aitzakia horrekin, parranda ederra egiten dute.

Noaua!.- Beno, eta ze eguraldi enkargatu duzue?

Albaro.- Astebukaera batean ez bada bestean euria egin izan du aurreko urtetan. Baina aurten hego haizea izango



URRIAK 3, OSTEKUNA

- 20:00etan** Jaien hasiera etxefero, buruhandi eta IDOIA eta IRATXE trikitalariek.
- 22:00etan** Dantzaldia EGAN BERRIA taldearekin.

URRIAK 4, OSTIRALA, SAN PRAIXKU EGUNA

- 9:00etan** Esnadeia txistulariek.
- 11:00etan** Meza nagusia bertsolariek.
- Ondoren** Zaharren hamaketakoa Joxe LIZA SO eta Patxi ETXEBERRIA bertsolariek eta herriko trikitalariek.
- 16:30etan** Olinpiada olinpikoak: lokotxak, txingak, korrika, toka, soka-tira, txintxirintxin, zaku-karrera, maleta-karrera eta mountain-bike proba.
- Ondoren** Sagardo eta sardina banaketa.
- 23:00etan** kontzertua: NAHI TA NAHIEZ, DEBRUAK TEILATUETAN ETA LATZEN.




URRIAK 5, LARUNBATA, OILASKO BILTZAILEEN EGUNA

- 6:00etan** Oilasko biltzaileen gosaria kruasan eta txokolatearekin eta ondoren irteera.
- 14:00ak aldera** Oilasko biltzaileen itzulera.
- Ondoren** "TXANTXON" eta "GORRI"ren saioa.
- 20:00etan** Oilasko biltzaileen afaria.
- 23:00etan** Kantaldia ANJE DUHALDERen esku tik (sarrera 300 pzt eta mugatua).
- Ondoren** Dantzaldia TRAKETS taldearekin.

URRIAK 6, IGANDEA

- 8:30etan** Esnadeia txistulariek.



Xabier Aranburu "Xomorro"

Xabier Aranburu "Xomorro"ri asteburu honetan, irailaren 28 eta 29an, omendaldia egingo zaio Aginagan. Usurbilgo Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Aginagako Jai Batzordeak ekitaldi ugari antolatu dituzte aipatutako omenaldirako. Bere eskularen erakusketa bat ere ikusgai izango da.

"Xomorro" 1991ko abuztuaren 17an atxilotu zuten, eta bost urte hauetan Estatu espainiarreko espetxe desberdinetan egon da: Carabanchel, Alcalá-Meco, Herrera de la Mancha eta Valdemoron. Gaur egun, Herrera de la Manchako espetxean aurkitzen da.

Urtero, San Praixku jaiak iristen direnean, Xabier bereziki gogoratzen da. "Sentipen mordo bat nahasten zaizkit batera; herrimina, amorrazioa, oroimenak, tristura, hutsune handi bat...Ene bihotzeko zerbait ostu balidate bezala sentitzen naiz!".

- 9:00etan** Tiro platoa probintzia mailan.
- 10:00etan** III. Mountain bike martxa.
- 12:00etan** XIV. Toka txapelketa.
- 17:30etan** Soka tira txapelketa.
- 18:00etan** Bertsolariak: MAIALEN LUJANBIO, MAÑUKORTA, ESTITXU AROZENA ETA XABIER ZEBERIO. Gai jartzailea: UNAI LOIDI.
- Ondoren** ARROZPIDE anai-arreba trikitalariak.

URRIAK 10, OSTEKUNA

- 21:30etan** LURRA mendiko diapositiben emanaldia.

URRIAK 11, OSTIRALA

- 9.00etan** Umeen jolasak eguerdi alderarte.
- 14.00etan** Umeentzat bazkaria.
- Ondoren** Jolasak eta sari banaketa.
- 17.30etan** TAKOLO, PIRRITX eta PORROTX.
- Segidan** Txokolate banaketa.
- Ondoren** Buruhandiak.
- 23:00etan** Dantzaldia AKELARREekin.

Urriak 12 eta 13an ere San Praixku jaiak jarraituko dute, eta egun horietako egitaraua urriaren 11ko alean izango duzue.

ERREBOTEA BITAN ZATITUTA ZUBIETAN

Enrike Abril errebote txapelketa martxan da jadanik. Zubietako plazan errebotea ikusteko aukera duzue abuztuaren azkenetik. Hala ere bertan ikusiko ez dituzuenak Zubietako pelotariak izango dira. Yoko Garbi elkarteke pelotari eta agintarien arteko ika-mika da horren errudun.

Apirilaren 21ean Zubietako Yoko-Garbi elkartearen egin zen batzarrean hasi zen guztia. Azken urteetan pelotarien eta elkarteke agintarien arteko giroa petraltzen hasia bazen ere, zuzendaritza batzordeko lau kide eta zuzendaria aukeratzekoan Yoko Garbi elkartearen pelotari eta agintarien arteko arazoak agerian jarri ziren.

Batzar horretan zuzendaritza batzordeko bederatzi kideetatik bost aukeratu behar ziren eta bertara aurreko batzaraldian batzarkide izan ziren bost kideko kandidatura itxia aurkeztu zen.

Xabier Arregi pelotarien bozeramaile eta juntakideak

esandakoaren arabera pelotariak ez zuten uste hauek aurkeztuko zirenik. *"Beraiek askotan esaten zuten uzteko gogoarekin zeudela. Horregatik ezustekoa hartu genuen batzarrean hauek hautagai aurkeztean"*. Gauzak honela hauek beste kandidatura aurkeztu zuten eta bozketan baten ondorioz Iñaki Aizpurua zuzenduriko kandidatura irten zen garaile.

Giro traketsa areagotu

Aukeraketa honek giroa hobea egotzea beharrezkoa zela Yoko Garbi elkartearen zegoen zatiketa areagotu zuen. Xabier Arregiren esanetan, *"aukeraketa honek elkartearen funtzionamenduak lehengo ildoetik jarraitzea suposatu zuen. Pelotariok uste dugu orain arte inertzia hutsez egin dela lana, ekintza bat egiten zen aurreko urteetan egiten zen moduan, ezer aldatu gabe. Lehen zuzendaritza batzordean zeuden pertsona berberak jarraitzeak lehengoan jarraitzea esan nahi zuen, eta guk hori ez genuen onartu"*.

Honela bada, apirilaren

amaieran 14 pelotarik sinatutako idazkia iritsi zitzaion Yoko Garbiko zuzendaritza batzordeari. Bertan Yoko Garbi elkarteak azken 40 urteetan errebotearen munduan eginiko lana ona izan zela zioten, baina zuzendaritza batzordea berri-zean azken urteetako giro motela berritzeaz gain, elkarteak kirol talde bezala egitura aldaketa baten beharra azpimarratzen zuten. Idazki honek asko harritu zuen Iñaki Aizpurua Yoko Garbiko zuzendaria, *"izan ere nik eta beste hiru bazkidek hamar urte daramazkigu batzordean eta urte hoietan ez dugu kexarik izan pelotarien aldetik. Eta bapatean kexatzen hastea..."*.

Arazoa ezin konpondu

Bazkide ziren pelotari eta batzordearen arteko bilera proposatu ondoren, eta pelotariak bilera hau onartu ez zutelako Iñaki Aizpurua pertsonalki bildu zen pelotariekin ekainaren azken aldera.

Bertan pelotarien jarrera argi gelditu zen. Xabier Arregi pelotarien bozeramaileak esan bezala, *"Yoko Garbi elkartearen gastronomia arloa eta pelota bereiztea zen gure asmoa. Elkartearen sortzeaz pelotariak da, gastronomia ondoren sortutako ekintza bateratua izanez. Guk pelotariaren funtzionamendu autonomoa eskatzen genuen. Horrela zuzendaritza batzordeari pelotari zuzenduriko batzorde baten beharra jakinarazi genion, batzorde honek lanerako eta gestiorako autonomia izanez. Hala ere direktibak batzorde horretan partehartzeko aukera zuen*



*eta horrez gain gero gainbegi-
ratzeko ahalmena ere izango
luke. Funtzionamendu aldake-
ta besterik ez genuen nahi,
errebotearen gainbehera gel-
diarazteko".*

Iñaki Aizpuruak ere garbi utzi
zituen bilera hartan batzorde-
aren nahiak. "Pelotariak eska-
tzen zutena ezinezkoa zen.
Pelotariak proposatzen zuten
batzordeak pelotaren inguru-
ko erabaki guztiak hartzea,
eta hori ezinezkoa da,
Pelotarien arabera batzorde
zuzendaria batzorde hori
aukeratzeko ahalmena soilik
izango luke. Ondoren ez
zuzendaritza batzordeak ez
eta zuzendaria berak ere
ezingo luke ezer egin. Guk hau
ez genuen onartu, pelota fe-
derazioko kontseilari juridikoa-
rengana jo eta honek propo-
samen hau estatutuen kontra
zegoela esan zigun eta".

Hala ere Iñaki Aizpuruak
beste proposamen bat aur-
keztu zien pelotariei. Barne
antolaketa autonomia izan-
go lukeen batzordea hain
zuzen ere. Batzorde honek
pelotarien fitxaketan, entrena-
tzailea izendatzerakoan, tal-
dekideak aukeratzekoan...
askatasuna izango zukeen.
Batzarrak erabakitako aurre-
kontua gastatzeko ere askata-
suna izanaz. Hala ere kanpo
antolaketa erabakitzeko



argazkiak: Jossean

antolaketa ahalmena zuzen-
daritza batzordeak izango
luke.

Pelotariak ez zuten hori onar-
tu azken finean lehengoan
jarraitzea suposatzen baitzuen.
Ekainaren amaieratik bilerarik
egin gabe egon ondoren
abuztuaren amaieran amai-
tzen zitzairen fitxa ez zuten
berritu 14 pelotarik, baldintza
haitan eta ika-mika horretan
sorturtako giroarekin jarraitze-
ko prest ez zeudelarik. Honela
bada Enrike Abril torneoan
Zubietak ez du ordezkapenik,
azken 33 urtetako tradizioa
hautsiz.

Etorkizun beltza

Konponbiderik ez dute ikus-
ten bi aldeek. Yoko Garbi eta
pelotari hauen artean ez
dago hartuemanik. Xabier
Arregir eta gainerantzeko pe-

lotariak elkarrekin daude. "Lau
hilabete hauetan izandako
prozesuak garbi erakutsi digu
guk esaten genuena: elkar-
teak beste era batera funtziona-
tu behar duela. Orain arte
nahiago izan dute inizatiba
berriak eta gauza berriak egin
baino lehenago egiten zen
bezala mantentzea. Errebotea
badakigu hari batetik zintzilik
dagoela, horregatik pelota
talde baten egitura eta dina-
mika duen taldea beharrez-
koa da errebotea indartzeko.
Guk Yoko Garbi elkartearen
gainetik errebotea jartzen
dugu, elkartea bitarteko bat
baita errebotea aurrera atera-
tzeko. Gure proiektua aurrera
eraman ezin dugunez beste
elkarre bat sortzeko ahalegi-
nean ari gara, beti ere errebo-
tearen onerako izango dela-
koan".



Xabier Arregi.
Pelotaria, eta Yoko Garbi
elkarteko zuzendaritza
batzordeko kidea.

Sustraian arazo nagusi bat dago, erreleboaren
falta. Azken urteetan pertsona batzuk lanean
egon dira, lan hori hor dago, baina hauen lana
urteak pasa ahala moteltzen joan da. Belaunaldiz
belaunaldi transmisio bat egon behar du jendea-
ren artean eta Zubietan hori ez da gertatu. Aurten
aldaketa gauzatzeko jendea prest zegoen baina
hala ere jarraitu nahi izan dute, nahiz eta errebo-
tea sustatzeko proiekturik ez izan.



Iñaki Aizpuru
Yoko Garbi elkarteko
lehendakaria.
**10 urte daramatza zuzen-
daritza batzordean.**

Orain arte ez dute kexarik izan. Hamar urte dara-
mazkit zuzendaritza batzordean eta istilurik ez da
izan. Iaz errebote eskola sortzeko proposamena
egin ziguten eta guk onartu genuen. Baina aur-
ten, bapatean, planteamendu modernoekin eto-
rri zaizkigu eta Yoko Garbik batzorde autonomia-
rena ezin du onartu. Etorkizuna beltza dago, oso
zaila ikusten dut Yoko Garbik errebote txapelketak
jokatzea, nahiz eta hauek antolatzen jarraitu.



Kerman Errekondo eskubaloi jokalaria omendu dute

Kerman Errekondo omendu zuen Usurbilgo Kirol Elkarteak irailaren 20an. 14 urtez ibili da Usurbilgo Eskubaloi Taldean eta iaz utzi zuen. 13 urterekin jokatu zuen bere lehen partidua. 18 urterekin Zarauzko taldean ibili zen Usurbilen ekiporik osatu ez zelako. Baina hurrengo urtean berriro ere herrira itzuli zen.

Omenaldia egin aurretik Zarautz eta Usurbilgo taldeek anaitasun partidu bat jokatu zuten, herritarrek 10-20 galdu zutelarik. Ondoren, omenaldia egin zitzaion eskubaloian hainbeste urte ibili den jokalariori. Gero afari batekin eman zioten errematea egunari, Aginagako Errasti sagardotegian 30 lagun bildu zirelarik.

Kutxako kutxazaina kiskalita koktel molotofen eraginez

Irailaren 20an, goizaldeko 2:20etan **Kutxa**ko kanpokaldeko kutxazaina sutan zegoela abisatu zien bizilagunek udaltzainei. Hauek suhiltzaileei deitu zien, eta etorri bitartean bizilagunak sua itzaltzen ahalegindu ziren. Hala ere, kutxazaina kiskalita gelditu zen, eta zenbait kristal ere apurtu ziren beroaren eraginez. Ostirala

goizean **Kutxa** itxita egon zen, barrukaldea erabat zikina eta ke usainez zegoelako. Kutxazaina ere zenbait egunetan zerbitzuz kanpo egon da.

Udaletxe pareko **telefono kabina** ere puskatua izan zen irailaren 16ko gauean, **barrikadak** jarri ziren egun berean.



Hiru usurbildar gose greban Berlinen eta akanpada herrian presoek eskubideak betetzea eskatuz

Senideak eta **Gureak** elkarteek antolatuta, Europako sei hiriburutan **gose greba** burutu zuten 540 euskal hiritarrek. Mobilizazio honen bidez euskal presoek egoera Europan zehar ezagutarazi nahi izan zen, eta bide batez legez zor zaiena ematea exijitu ere bai. Gose grebalariekin artean **Karmele Heivia, Mikel**

Aranburu eta Xabier Orbegozo usurbildarrak herriko hiru presoak ordezkatzeko izan dira. Astebeteko baraualdia Berlinen burutu dute hauek.

Bitartean, Usurbilen ere **akanpada** bat egin zen irailaren 20tik 22ra. Ostirala gauean 14 pertsona egon ziren bertan akanpaturik, eta larunbatean, berriz, 17 lagun.



Ondo pasa San Praixkuak!

Aginaga

Tlf. 36 63 40



Ondo pasa SanPraixkuak!

Aginaga
☎ 36 27 73

BEREZITASUNAK
SEKAÑA Txerrikumea,
Txuleta eta Arraia

Irailaren 7an
Ordizian I.

Akordeoi Lehiaketa ospatu zen. Zortzi finalisten artean Xabier Tapia suertatu zen garaile. Berarekin batera, perkusioan **Iker Muguruza** usurbildarra aritu zen. Lehenengo lehiaketan lehen saria irabaztea, ez dago batere gaizki.

Michelin lantegiak plan sozial berri bat jarriko du martxan datorren urte hasieran. Egun, Usurbilgo Michelin lantegian 1600 langile daude. Plan berriaren aplikazioak 243 langileri eragingo die, guzti hauek izango baitira aurrejubilatzea hartuko dutenak.

Xabier Andonegi Madril aldera joango zaigula eta, **Ra-mon Aranburu** izango da hemendik aurrera Usurbilgo apaiz berria. Pasai San Pedron 26 urte egon ondoren, jaioterrira itzuli da Ramon. Urritik aurrera apaiz gisa lanean ikusteko aukera izango dugu.

Galtzaragaineko bigarren faseko etxebizitzetan jendea iadanik jarri da bizitzen. Dena dela, lur azpiko garajeak oraindik ez daude erabiltzeko moduan, eta badirudi zenbait arazo daudela hauekin beraz, kotxeak beste nonbait sartu beharko dituzte lanak bukatzen diren arte.

Diputazioak Atalluko lurren espropiazioa onartu du. Joan den asteartean, hilak 24an, egin zen plenoan lurrak Ingemarri adjudikatu zitzaizkion. Lurjabeak 20 egun ditu Udalaren diru proposamena onartzeko, baina hala ere Ingemar edozein momentutan hartu ditzazke lurrak eta obretan hasi.

Urriaren 11ean **Jose Antonio Altuna** alkateak epaiketa izango du **Udala ejerzitoarekiko intsumitua** delako. Udalaren jokaera honen aurrean alkateta bi aldiz izan da epaitegira deitua eta bietan uko egin ondoren, hirugarren deialdi honi ere uko egiteko asmoa du.



Joan den hilak 21ean egin zen **Usurbilgo Sagardoegileen arteko sagardo lehiaketa**. Bertan Usurbilgo bost sagardoegileek beren sagardoak ezarri zituzten dastagai. Afaltzera bildu ziren 35 pertsonak beren puntuazioa eman ondoren **Egioleta** baserriko sagardoa izan zen onena. Bost sagardoak bi aldiz das-

tatu zituzten, batean makailoarekin eta bestean kostilarekin. Azkenean afari kide bakoitzaren puntuazioa jaso ondoren irudietan duzuen **Txomin Alkor-taren** sagardoa izan zen garaile. Aurtengo lehiaketaren arrakasta ikusi ondoren, datorren urtean berriz ere egiteko asmoa dute Aitzaga Elkartekoek.

Autobus zerbitzuen murrizketaren inguruan Eusko Trenen erantzunaren zain dago Udala. Joan den hilaren 11ean egindako bileran 40 usurbildar inguruk autobus zerbitzuen murrizketa zela eta beren desadostasuna agertu zuten Diputazio aurrean

Pirineotako irteerara zihozten zenbait lagunek istripua izan zuten Yesa urtegiaren parean. Kotxea bidetik atera eta bost buelta eman ondoren, zorionez, **Iñaki Esnaola, Pako Esnaola, Mari Jose Bereziartua eta Joseba Pellejero** onik atera ziren susto

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 37 10 42

N • U *Ileapaindegia*
MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2, 2 - 1.A
☎ 36 19 51

Orain Aginagan, Arrate
Zahar Etxean larunbatero

ORBELDI

MARKEL OIAIZOLA
ESBURU eta ENITA 48 & 200005




GENERALI
Aseguru Kompania

Mate guztietako Asegurorik
zuzenazko iturriko

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

KIROL KOPLA



OIDUI USABIAGA

Honelako hotza eta batzuk izerdi patsetan orain ere! Iraileko eguraldi tristenek ere ez dute kirol koplak isildu.

Txirindularitzan berriz, **Haimar Zubeldia** goraiatu behar dugu. Goierriko itzuliko lehenengo etapen 5. postua eskuratu zuen eta.

UGAK antolatutako frontenis txapelketan, finalistak **Arkaitz Errazkin/Gorka Etxeberria** batetik, eta **Patxi Borda/ Mikel Ibarreta** izango dira bestetik.

Ohorezko mailako eskubaloiak ere badu zeresanik Usurbilen; **Xabier Mikel Rekondok** Ciudad Real taldearekin denboraldia ondo hasteko, 8 gol sartu zituen lehenengo partiduan; ez dago hau geldituko duenik!

Aitzagak antolatutako **Eskuz Binakako Txapelketak** ere laister emango dio bizitasuna Usurbilgo frontoiari. Aurten ere, **14 bikotek** txapela izango dute jokoan. Aurreko urteko irabazleek oraingoan ere txapela bururatuko al dute? Apustuak hasi dira!

Gorespenik merezi duen **KKE Andatza elkarte** ere ezin dugu ahaztu. Urtefik urtera, bertako partaideen lanari esker, jendetza handia ari da biltzen natura eta mendiaren inguruan. Talde honek biltzen dituen eskaintzak gero eta zabalagoak dira; animatu zaitzete irtenaldietan parte hartzera.



Ezkerretik eskuinera:
Goian, Iker Alduntzin, Kepa Unanue, Mikel Elexpe eta Juan. Behean Iñaki Udabe, Aier Goia, Ibon Beristain eta Josu Aranberri. Hauekin batera taldean izango dira: Jabi Eizagirre, Iker Manterola, Infante eta Iker Mujika.

HERRIKO GAZTEAK SASKIBALOIAN

Aurreko alean Aiora Arrospidek xurrunu gisan agertzen zuen berria egi bihurtu da. Lehendik kirol talde gutxi ez eta beste talde bat sortu berria da Usurbilen, Usurbil Saskibaloia Taldea.

Urtearen hasieratik zerbiltkiten saskibaloia taldea sortzeko asmoa. Herriko zenbait gazte elkartu eta saskibaloia taldea sortzea beharrezkoa ikusi zuten, Saskibaloian jokatu nahi zuen edonork kanpora joatea beste aukerarik ez zuten, eta horrelaxe ibili dira zenbait urtetan taldeko jokalariek direnietatik batzuk, Lasarteko Ostadar edo Orioko taldean hain zuzen ere.

Beraz asmoa egi bihurtu zedin lehen pausoak eman zituzten. Lehenik eta behin,

elkarren artean zenbait neurketa jokatu zituzten; ondoren Santixabel jaietan arrakasta itzela izan zuen saskibaloia txapelketa antolatatu zuten; eta udara igaro ondoren burokrazia lanen eta entrenamenduen garaia iritsi zaie.

Senior mailako 2. dibisiotan Gipuzkoako hainbat herrietako taldeekin neurtu beharko dituzte beren indarrak herriko mutil sendo hauek. Horregatik, urriaren amaieran hasiko den ligarako gogor entrenatzen dihardute urriaren hasieratik.

Hala ere beti bezala diru eskasia dute areriorik handiena. Denboraldia aurrera eramatea diru asko kostatzen omen da, eta gustora hartuko lukete babesle baten laguntza.

ERREKONDO EGUR ZERRA

eraikuntzak eta
altzariak
bertako
egurrean



Tel./Faxa 362237 Zubietza

SALTXIPI




Txokoalde, z/g
Usurbil

Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

PORTUARRIENE

ITURGINDEGIA
BAINUKO ALTZARIAK



Kale nagusia,2
Tlf. denda: 36 46 37 etxea: 36 52 99

Duela urte 1' erdi inguru KIRIKOKETA txalaparta taldea sortu zen Usurbilen. Bere partaideak Jexux Artze, Pello De la Cruz, Mikel Artola eta Iker Muguruza dira. Laukote honek txalaparta jotzeko ikusmolde berri bat azaltzen digu.

Jexux Artzek 32 urte daramatza txalapartaren munduan. Esperientzia honek txalapartak jarraipen handia behar duela erakutsi dio: "aspaldidanik izan dut txalapartarekin gauza berriak lantzeko gogoia, baina horrek bikotearekin ordu asko sartu behar dituzula esan nahi du.

Batzuetan bati ezinezkoa zaio etortzea, eta bestetan besteari.

Horrek apurtu egiten du erritmoa.

Horregatik bururatu zitzaidan talde bat osatzea, eta proposamena luzatu nien jarraipen hori lortzeko.

Hasieratik banekien ondo aterako zela, eta hala gertatu da. Batek ezin badu etorri bestea etorriko da.

Gainera, denak nire ikasleak izandakoak dira eta ezagutzen gara".

Taldeak bere historia duen bezala, beren izenak ere badu berea. Artzen esanetan, Kirikoketa Arizkun txalapartari deitzeko garai batean erabiltzen zuten hitza da. "Bertako gizon zahar batekin hitz egiten arituginen, eta hark esan zigun kirikoketa gaztea zelarik sagardotegietan jotzen zen musika tresna zela. Izen hau gainera txalapartak ateratzen duen soinurekin lotua dago. Guk ttakuna deitzen dioguna haiek kiri-ko deitzen zioten, txalaparta jotzean ateratzen duen soinua imitatuz. Gaur egun ordea inguru hoietan ez da txalapartarik jotzen", azaltzen digu Jexuxek.



Kirikoketa taldeko lau partaideentzat txalaparta denborapasa bat baino zerbait gehiago da. Pellok adierazten duenez, "betidanik gustatu izan zaidan zerbait izan da, eta orain oso gustora aurkitzen naiz. Orduak sartu behar dira, baina gustora zaudenean ez dago arazorik". Orduak sartzea beharrezkoa da beraien arteko koordinazioa ahalik eta onena izan dadin, "astean behin entsaiatzen dugu gutxienez bi orduz, eta nonbaitera joan behar badugu ordu gehiago sartzen ditugu. Lehenik, gutako bi hasten dira jotzen, gero bat atera eta beste bat sartzen da, eta hurrengoan beste bat... Horregatik elkar ezagutzea oso garrantzitsua da", aipatzen du Mikelek.

"Txalapartarien artean elkarrizketa egon behar du, komunikazioa bestela ez da ezer ateratzen", zehazten du Jexuxek.

Nahiz eta taldea nahiko berria izan, jadanik arrakasta ukitzeko aukera ere izan du, izan ere, aurtengo Donostiako Jazzaldian parte hartu baitu laukote honek.

Denek baieztatzen dute hau oso esperientzia positiboa izan dela, ez jende askoren aurrean jo dutelako bakarrik, izen handien alboran aritzeko aukera izan dutelako baizik (Iñaki Xalbador, Amaia Zubiria edo Mikel Laboarekin, besteak beste). Pasadan irailaren 20an ere Mikel Laboarekin batera aritu da Kirikoketa taldea Elizondon, eta beharbada Perpignan-era ere joango dira Iñaki Xalbadorrekin beren ikuskizuna eskaintzera.

Ez dadila azkena izan!

OKINDEGLA
KALE NAUCYSIE, 25
TEL. 36 12 26
YSURBIL.

URTINEA LORATEGIA
Lore eta lore landareak
San Esteban
Tlf. 36 22 55

xabier
aritegia

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 36 19 78



IRAILAK 28 larunbata

*Arrate Zaharren Egoitzako eta Gure Pakea Zahar Egoitzako kideak Beasainen ospatuko den 6. Ibilaldi Neurtura joango dira.

*Xabier Aranburu "Xomorro"-ri omenaldia eskainiko zaio Aginagan:

-Goizeko 10etan bizikleta martxa Aginagako plazatik hasita Euskal presoak Euskal Herrira aldarrikatuz.

-Arratsaldeko 16.00tan Mus Txapelketa.

-Gaueko 23.00etan dantzaldia Triki Ta Ke eta Gozategi anai-arrebekin.

*Futboleko Bigarren Erregionaleko partidua Harane futbol zelaian: Usurbil-Koxkax.

*Futboleko nesken estreineko partidua: Elgoibar-Usurbil.

*Kalezarko Gaztetxean Rock kontzertua FOLKCORE eta TOFU taldeekin. Gaueko 22.00etan. Sarrera 200 pezeta.

IRAILAK 29 igandea

*Irailaren azken igandean Andatza K.K.E-k Usurbil-Ernio irteera antolatu du urtero bezala.

*Xabier Aranburu "Xomorro"-ri omenaldia:

-Goizeko 10.00etan mural pintaketa kolektiboa egingo da.

-Arratsaldeko 14.00etan zikiro jana

-Arratsaldeko 18.00etan omenaldia txalaparta, bertso-lari, trikitilari, diapositiba emanaldiekin... Ondoren elkartasunezko kalejira eta amaitzeko trikitilariak.

IRAILAK 30 astelehena

*Euskal Herria askatu!-ren konzentrazioa errotondan arratsaldeko

*Intsumitu eta hurbidu nahi duen beste edozeinentzat bile-ra deialdia. Udarregi Zaharrear arratsaldeko 20.30etan.

URRIAK 4 ostirala

*San Praixku jaien barnean Jubilatu eguna ospatzen da. Hori dela eta, Arrate Zahar Egoitzak eskulanen erakusketa bat antolatu du goiz eta arratsaldez elizako lokalean.

*Aitzagak antolatu duen eskuz binaka txapelketa gaur hasten da. Hemendik aurrera ostiralero sei partidu izango dira gaueko 21.00etan hasita.

URRIAK 5 larunbata

*Antxeta tabernan Mus Txapelketa egingo dute. Izena eman nahi dutenek Txiriboga tabernan dute kartela.


*Futboleko Bigarren Erregionaleko partidua: Roteta-Usurbil.

*Futboleko nesken partidua: Usurbil-Lizardi Institutua.


URRIAK 6 igandea

*Arrate Zahar Egoitzaren eskulan erakusketa San Praixku jaien barnean. Goiz eta arratsaldez Aginagako elizaren lokalean izango da.

*ENRIKE ABRIL Errebote Txapelketa: Billabona-Baiona II eta Hasparren-Askain partiduak goizeko 9.30etatik aurrera.



Usurbilgo Txistulari Taldeak entseiuak hasiko ditu irailaren 27an. Zumarte Musika Eskolan izango dute zita, arratsaldeko 20.45etan.



Hizkuntz Eskola Elduaieen

Pablo Martínezabal, 2
...te-Oria
Telf. 37 27 81

Ingeles hizkuntzan trebatzeko sei urtetik gorako
Hizkuntzarekin arazoak dituzten haurrentzat a

enda

URRIAK 7 astelehena

*Euskal Herria Askatu!-ren kontzentrazioa errotodan arratsaldeko 20.00etan.

URRIAK 10 osteguna

*Hirugarren adinari zuzendutako hitzaldia Udaletxean izaskun Santos sendagilearen eskutik. Gaia: Bizitza osasuntsuaren ohiturak. Arratsaldeko 18.00etan.

OHARRAK

*Irailaren 28a azken eguna izango da 1996ko ekitaldiaren bigarren hiru hilabetekoari dagozkion errezibuak, alegia, estolderia, ura eta zaborraren errezibuak ordaintzeko.

*Irailaren 16an hasi eta urriaren 5a arte Alfabetatzearen aldeko kanpaina martxan jarri dute Usurbilgo AEK, EHE, HB eta Udaletxeko Euskara Batzordeak. Kanpaina honen leloa "Euskaraz idazten eta irakurtzen ikasten ari naiz. Zu ere alfabetatzea" da.

*Berriozarren ospatuko den Intsumitu egunera joateko autobusak aterako dira. Izena eman nahi duenak Txiriboga tabernara hurbil dadila.

*"Xomorro"ri eskainiko zaion bi egunetako omenaldian zehar (irailak 28 eta 29), berak



Bigarren Jubenileko Futbol taldeak Lizardi Institutuaren aurka jokatu beharko du irailak 28an etxetik kanpo.

Hurrengo larunbatean, urriak 5ean, Usurbilek Ordiziako taldearekin jokatu du Harane futbol zelaietan.

egindako eskulanean erakusketak izango da ikusgai, eta zeldabat jarriko da Euskal Herriko presoak nolako egoera eta bizibaldintzetan dauden erakusteko.

*Usurbilgo Txistulari Taldeak bere entseiuak hasiko ditu irailaren 27an arratsaldeko 20.45etan.

*DYAren sorosle ikastaroaren hasiera irailaren 30ean arratsaldeko 19.00etatik 21.00 arte.

*Mihixe pintura taldeak bere ikasturteari hasiera emango dio urriaren 1ean. Klaseak astearte eta ostegunetan izango dira arratsaldeko 16.30etatik aurrera.

*Bota Punttuba bertso eskolaren 96-97 ikasturteari hasiera emango zaio urriaren 9an Bertsoak gogoko dituen edonork izango du lekua bertso

eskolan. Azaldu Udarregi Zaharrera ilunabarreko 8.30etan

*Iriuri abesbatzak entseiuak hasiko ditu urriaren 10ean. Arratsaldeko 20.00etan Zumarten.

*Hitza Jasoz Batzordearen bilera izango da irailaren 27an Udarregi Zaharreko gelan. Arratsaldeko 20.00etan.

*Katekesian izen emateko egunak urriak 1 eta 2 izango dira Parroki etxean. Goizean 10-11.30 eta arratsaldean 16.30-18.30.

*Biztanlego guztiari zuzendutako ikastaroa Udaletxean. Gaia: anorexia eta bulimia. Ikastaroa Anare Psikoterapia Zentruak eskainiko du 18.00etatik aurrera eta zortzi egunetan zehar: urriak 2, 9, 16, 23, 30 eta azaroak 6, 13 eta 20an.

MAHUKA



GAZTE DENDA
Orain, neguko
puntuakoa
Etxebestia Kalea 22. 47 11 66 016



TABERNA

Pintxo bereziak
eta
giro aparta

Irazu kalea, 9
Tlf: 36 02 17



Lehiaketa



argazkia: J.L. Izeta

Oraingo honetan Kalezarreraino hurbildu gara ale honetako galdera prestatzeko.

Auzo honetako gure kronistak esan bezala, udan turista asko ibili dira eta funikular falta nabaritu dute **Kalezarko eskailaretan**. Funikularra jartzeko ordea, datu bat beharrezkoa zaigu:

Zenbat maila ditu Kalezarko eskailarak?

Erantzuna baldin badakizu idatziezaguzu astelehena, urriaren 7a baino lehen: **Noaua!** aldizkaria, Kale Nagusia 27, 20170 Usurbil, postaz edo zuzenean gure buzoira botaz.

Asmatzaileen artean **ARRATE ZAHARREN EGOITZAN** bi lagunentzako afaria zozketatuko da.



Txelo Vidalek jadanik jaso du gure lehiaketako saria. **Sekañan** emandako afaria gustokoa izatea espero dugu.

Aurreko aleko galderaren erantzuna hauxe da: Argazkia garai bateko **"Mixerikordian"** aterea da. Gero, **"La Salle"** ikastetxea izandako patioan; ondoren **Udarregi Ikastolako** jolaslekua eta gaur egun **Usurbilgo Gazte Asanbladako** patioa. Argazkia orain dela 75 urte ingurukoa da. Oraingoa galdera erreza zen, jasotako gutun kopuruan nabaritu da. Ez pentsa aurrerantzean denak horrelakoak izango direnik! **Patri Jatetxeko** saria **Axen Pagolari** egokitu zaio. Ze, espero al zenuen? Ba, ZORIONAK eta aprobetxatu okasioa!

omikia



Maite Agirresaboobe



ZUMETA JATETXEA
Txoko alde, Tel.: 36 27 13

KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,
bazkariaketaafariak
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"
3.200 pta.

Zuenzaingeratzengara!



nekazaltresnak

Intxaurreta, z/g AGINAGA - Tlf. / Fax 36 26 60 - 36 12 32

Jai
zoriontsuak
opa
dizkizuegu
aginagarroi!



untziolak-nauti

Noaua!ren laugarren alea zure eskuetara iritsi da herriko albisteen berri emanez. Aurrerantzean ere, hamabostero-hamabostero ildo beretik jarrai dezan, zure laguntza beharko du. Oraindik ez zarela egin bazkide? Orain duzu aukera:

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

HARPIDE TXARTEA
5.000 PEZETAK URTE OSORAKO

H A M A B O S T E K A R I A
noauai

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

SENIDEREN BAT
USURBILDIK KANPO BADU-
ZU, Noaua!-KO
HARPIDETZA OPARITU
IEZAIOSU



TXIRIBOGA
TABERNA
pintxoak eta
botoak

Irazulakalea, 3 Tlf 67.00.13

PATRI

JAFETXA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Agustak 6
Tlf 36 27 25

20 170 Usurbil
(Eibarra)

EPE LUZERAKO LIBRETA

URTE BETERA **% 7** U.T.B.



CAJA POSTAL

500.000 ptatik aurrera

ZATOZ
POSTA
BULEGORA




ARGENTARIA

Alzariak
berritze

Urdaiaga errota
Txoko alde Tlf.-Fax 36 62 22

urriak 6 elgoibar



Banoa,

Euskaraz, bai